INDUSTRIA, MERKATARITZA ETA TURISMO SAILA

Zk-2345

EBAZPENA, 2000ko martxoaren 23koa, Energia zuzendariarena, indar elektrikoaren hornidura aldi baterako eteteko baimenak emateko jarraibideak zehazten dituena.

Sektore Elektrikoari buruzko azaroaren 27ko 54/1997 Legearen 50. artikuluko 2. paragrafoak dioenez, mantenimendurako, horniduraren segurtasunerako, instalazioak konpontzeko edo zerbitzua hobetzeko derrigorrezkoa denean, indar elektrikoaren hornidura aldi baterako eten daiteke, baina, kasu guztietan, aldez aurretik Administrazioaren baimena behar da eta erabiltzaileei arauz ezarritako eran jakinaraziko zaie.

Horniduraren etendura programatuei dagokienez, Indar elektrikoaren garraioa, banaketa, komertzializazioa eta hornidura, batetik, eta instalazioak jartzeko baimenak eskuratzeko prozedura, bestetik, arautzen dituen erregelamenduaren proiektuak, zeinak 54/1997 Legearen zenbait alderdi garatzen dituen, arautzen du baimen adierazi gabearen aukera. Izan ere, zera esaten du, eskaria egin eta 48 orduko epean etendurari eragozpenik jarri ezik, baimena eman dela ulertuko dela.

Energia zuzendariaren 1999ko azaroaren 18ko Ebazpenaren bitartez, Industria, Merkataritza eta Turismo Saileko Lurralde Bulegoetako buruei eman zitzaien, eskuordetzan, indar elektrikoa aldi baterako eteteko aurretiazko administrazio-baimena emateko eskumena.

Jarraibide honen bitartez, gutxitu egin nahi dira Industria, Merkataritza eta Turismo Saileko Lurralde Bulegoetan sortu diren arazo praktikoak. Izan ere, aurkezten diren baimen-eskariak presakoak eta oso ugariak dira eta, ondorioz, askotan ezinezkoa da administrazio-baimen adierazia hornidura eten aurretik ematea, 54/1997 Legeak agintzen duen bezala.

Beraz, etendurak presakoak direla eta teknikoki zailtasun berezirik ez dutela kontuan izanik eta Administrazioaren jardueraren oinarri izan behar duten ekonomi, azkartasun eta eraginkortasun printzipioak beteko dituen kudeaketa bermatzearren, komenigarri ikusten da adierazi gabeko baimena zehatz arautzea, xedapen zatian agertzen den eran.

Energia alorrean administrazio-baimena behar duten espedienteak kudeatzea, izapidetzea eta ebaztea Energia zuzendariaren zereginak dira eta berari dagokio esleitutako zereginak gauzatzeko eman beharreko administrazio-egintzak ematea, horrela xedatzen baita Industria, Merkataritza eta Turismo Sailaren egitura organi-

DEPARTAMENTO DE INDUSTRIA, COMERCIO Y TURISMO

Nº-2345

RESOLUCIÓN de 23 de marzo de 2000, del Director de Energía, por la que se dictan Instrucciones para la autorización de las suspensiones temporales de suministro de energía eléctrica.

La Ley 54/1997, de 27 de noviembre, del Sector Eléctrico establece en el párrafo 2º del articulo 50 que podrá suspenderse temporalmente el suministro de energía eléctrica cuando ello sea imprescindible para el mantenimiento, seguridad del suministro, reparación de instalaciones o mejora del servicio pero en todos estos supuestos será necesaria la autorización administrativa previa y la comunicación a los usuarios en la forma que reglamentariamente se determine.

El Proyecto de Reglamento de Transporte, Distribución, Comercialización, Suministro y Procedimientos de Autorización de Instalaciones de Energía Eléctrica que va a desarrollar determinados aspectos de la Ley 54/1997, en relación con las interrupciones programadas de suministro ya regula la posibilidad de autorización tácita al establecer que se entenderá otorgada la autorización si transcurrido el plazo de 48 horas desde la solicitud, no se estableciera objeción a la interrupción.

Por Resolución del Director de Energía, de 18 de noviembre de 1999, se delegó en los Jefes de las Oficinas Territoriales de Industria, Comercio y Turismo la competencia para la concesión de las autorizaciones administrativas previas para suspender temporalmente el suministro de energía eléctrica.

Con la presente Instrucción se pretende paliar los problemas prácticos surgidos en las Oficinas Territoriales de Industria, Comercio y Turismo como consecuencia del carácter urgente y del elevado numero de solicitudes que a efectos de autorización se presentan en las mismas, de modo que en muchos casos se hace imposible que se pueda conceder, de forma expresa, la preceptiva autorización administrativa con carácter previo a la suspensión del suministro tal y como exige la Ley 54/1997.

Por ello, teniendo en cuenta el carácter urgente y la escasa transcendencia técnica de las mismas y en aras a una gestión más acorde con los principios de economía, celeridad y eficacia que deben gobernar la actuación administrativa se considera conveniente la concreta regulación de la autorización tácita en los términos que se establece en la parte dispositiva.

Así mismo y de conformidad con lo dispuesto en el Decreto 131/1999, de 26 de febrero, por el que se establece la estructura orgánica y funcional del Departamento de Industria, Comercio y Turismo, corresponde al Director de Energía dictar los actos administrativos para la ejecución de las funciones que se le asignan y entre las

koa eta egitekoak finkatzen dituen otsailaren 26ko 131/1999 Dekretuan.

Ildo horretatik, ebazpen honetako xedapen zatian jasotzen diren xedapenak Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 21. artikuluan oinarrituta eman dira. Artikulu horren arabera, administrazio-organoek hierarkian beren menpe dauden organoen jarduera jarraibide eta zerbitzu-aginduen bitartez zuzen ditzakete eta, hartzaileak nortzuk diren edo sor daitezkeen eraginak kontuan hartuta komenigarri ikusten denean, jarraibideok dagokion aldizkari ofizialean argitaratu ahal izango dira.

Aipatutako lege-manuak eta horiekin bat datozen gainontzeko xedapen orokorrak ikusita, hauxe

EBATZI DUT:

1. artikulua.– Indar elektrikoaren etendura programatuak egin baino lehen, enpresa banatzaileak baimena eskatu beharko du, Industria, Merkataritza eta Turismo Saileko Lurralde Bulegoetan, 72 orduko aurrerapenarekin.

2. artikulua.– Eskaria egin eta 48 orduko epean etendurari eragozpenik jarri ez bazaio, baimena eman dela ulertuko da. Eskumena duen organoak programatutako etendurak justifikaziorik ez duela edota kalte handiak eragin ditzakeela uste badu, ukatu egin dezake baimena.

3. artikulua.– Eragindako kontsumitzaileei programatutako etenduren berri emango zaie 24 orduko aurrerapenarekin gutxienez. Horretarako bide hauek erabiliko dira:

1 kV-eko tentsiotik gorako hornidura duten kontsumitzaileei eta funtsezkotzat jotako zerbitzuak ematen dituzten establezimenduei banan-banan jakinaraziko zaie eta jakinarazpena igorri dela jasota geratuko da.

Gainontzeko kontsumitzaileen kasuan, kartelak jarriko dira ondo ikusten diren lekuetan eta iragarkiak argitaratuko dira lurraldean hedadura gehien duten hedabideetatik bitan.

4. artikulua.– Administrazioak etendura programatua baiesten ez badu eta kontsumitzaileei egingo dela jakinarazi bazaie, aurreko baliabideak erabiliko dira horren berri emateko.

5. artikulua.– Jakinarazpenerako agiriak derrigorrez jasoko du etendura zein egun eta ordutan hasi eta bukatuko den.

que se encuentra la gestión, tramitación y resolución de todos aquellos expedientes que en materia de energía deban ser objeto de autorización administrativa previa.

En relación con lo anterior, las disposiciones contenidas en la parte dispositiva de esta Resolución, se dictan al amparo de lo establecido en él articulo 21 de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Publicas y del Procedimiento Administrativo Común, según el cual, los órganos administrativos podrán dirigir las actividades de los órganos jerárquicamente dependientes mediante instrucciones y ordenes de servicio, debiendo tales instrucciones ser publicadas en el correspondiente Boletín Oficial cuando se estime conveniente por razón de los destinatarios o de los efectos que puedan producirse.

Vistos los preceptos legales citados y demás disposiciones de general y concordante aplicación,

RESUELVO:

Articulo 1.– Para las interrupciones programadas del suministro de energía eléctrica la empresa distribuidora deberá solicitar la correspondiente autorización en las Oficinas Territoriales de Industria, Comercio y Turismo con una antelación mínima de 72 horas.

Articulo 2.– La autorización se entenderá otorgada si transcurrido el plazo de 48 horas desde la solicitud, no se estableciera objeción a la interrupción. En aquellos supuestos en que el órgano competente considere que no queda justificada la interrupción programada o bien que de la misma pueden derivarse perjuicios importantes, podrá denegar la autorización solicitada.

Articulo 3.– Las interrupciones programadas deberán ser avisadas a los consumidores afectados con una antelación mínima de 24 horas, por los siguientes medios:

mediante comunicación individualizada, de forma que quede constancia de su envío, a los consumidores cuyos suministros se realicen a tensiones superiores a 1kV y a los establecimientos que presten servicios declarados esenciales.

mediante carteles anunciadores, situados en lugares visibles, en relación al resto de consumidores, y mediante comunicación en dos de los medios de mayor difusión de la provincia.

Articulo 4.– En el caso que la Administración no autorice la interrupción programada y esta ya haya sido anunciada a los consumidores, deberá informarse a estos de tal circunstancia por los mismos medios anteriores.

Articulo 5.– El documento de aviso deberá contener, en todos los casos, la fecha y la hora de inicio de la interrupción, así como, la fecha y la hora de su finalización.

XEDAPEN IRAGANKORRA

Ebazpen honetan jasotzen diren xedapenak indarrean egongo dira harik eta Sektore Elektrikoari buruzko azaroaren 27ko 54/1997 Legea garatuko duten arauek Ebazpen honetako gaiei buruz xedatutakoa indarrean jarri arte.

AZKEN XEDAPENA

Ebazpen honek sinatu den egunetik izango du eragina, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko bada ere.

Vitoria-Gasteiz, 2000ko martxoaren 23a.

Energia zuzendaria,
TXABER LEZAMIZ CONDE.

DISPOSICIÓN TRANSITORIA

Las disposiciones contenidas en la presente Resolución producirán efecto hasta la entrada en vigor de las normas estatales que desarrollen la Ley 54/1997, de 27 de noviembre, del Sector Eléctrico en las materias que constituyen el objeto de esta Resolución.

DISPOSICIÓN FINAL

La presente Resolución producirá efectos desde la fecha de su firma, sin perjuicio de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

En Vitoria-Gasteiz, a 23 de marzo de 2000.

El Director de Energia,
TXABER LEZAMIZ CONDE.